AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3741

AGINDUA, 2014ko abuztuaren 25ekoa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetarako, hizkuntza dela-eta bereziturik dauden lanpostuak betetzeko berariazko lehiaketa behin betiko ebazteko dena.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2014ko ekainaren 11ko Aginduaren bitartez deitutako lekualdatze-lehiaketaren ondoriozko espedientea ikusi da (2014-06-23ko EHAA, 2014-06-28 BOE) Lehiaketa horren helburua hauxe da: Prozesu eta Administrazio Kudeaketako, Prozesu eta Administrazio Izapidetzako eta Laguntza Judizialeko kidegoetarako, hizkuntza dela-eta bereziturik dauden lanpostuak betetzea.

Abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoaren bidez aldatu zen: uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa, Botere Judizialari buruzkoa dena. Bada, lege haren VIII. tituluan, xedatutakoarekin bat etorriz, eta, halaber, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langile funtzionarioen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta lanbide-sustapenari buruzko Erregelamenduko –abenduaren 7ko 1451/ 2005 Errege Dekretuaz aldatutako– xedapen indargabetzailean xedatutakoarekin, honakoa xedatu dut:

Hori dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Eranskinean argitara ematea honako destino hauek: 2014ko ekainaren 11ko Aginduaren bitartez deitutako lekualdatze-lehiaketan parte hartu duten funtzionarioei behin betiko esleitu zaizkien destinoak, zehazki, I. eranskinean zerrendaturik ageri direnak, eta, halaber, horien erresultak.

Bigarren artikulua.– Lehiaketa honetara aurkeztu eta destinorik eman ez zaien eskabideak iraungitzat jotzea. Beraz, hurrengoko lekualdatze-lehiaketetan ez dira kontuan hartuko.

Hirugarren artikulua.– Deialdi honetan esleitu ez diren plazak eman gabe uztea, non eta ez diren amortizatuko plantilla organikoa edo langile-zerrenda organikoa aldatuz edo lanleku bateko langileak berrantolatuz; beraz, funtzionario berriekin beteko dira.

Laugarren artikulua.– Zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo familiakoak zaintzeko borondatezko eszedentzian diren funtzionarioei dagokienez, baldin ez badira berriro sartzen lehiaketa honetan aipatu eskala edo kidegoren batera, 2014ko irailaren 12an egin beharko da kargu-uztea.

Bosgarren artikulua.– Lortutako destino berriaz jabetzeko epea hiru egun naturalekoa izango da kargutik kentzetik hara zenbatuta, funtzionarioak herriz aldatu behar ez badu; zortzi egun naturalekoa Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen beste herri batera aldatu behar badu, eta hogei egun naturalekoa beste autonomia erkidego batera joan behar badu, honako kasu hauetan izan ezik: Kanarietako Komunitate Erkidegoa, Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa, Ceutako Hiria eta Melillako Hiria. Azken kasu horietan epea hilabetekoa izango da bai lanpostua jatorrikoa bada, bai destinokoa bada. Bere karguaz jabetzearekin esleipendunak zerbitzu aktibora itzultzea lortzen

badu, epea hogei egun naturalekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindu hau argitaratzen den egunetik hara zenbatuta.

Karguaz jabetzeari dagozkion ondorioetarako, lanpostuan zerbitzu-eginkizunetan diharduten langileentzako honako hau joko da «funtzionarioaren herritzat»: herria zeinetan lanean diharduen. Zentro berean jarraitzen badu, destinoa, kargutik kentzeari dagokion eguna eta karguaz jabetzeari dagokiona.

Seigarren artikulua.– Esleitutako destinoei ezin izango zaie uko egin. Justizia Administrazio Zuzendaritzak Justizia Ministerioari jakinaraziko dio destinoen esleipena, hain justu ere 2014ko apirilaren 29ko Aginduaz deitutako lanpostu generikoetarako lekualdatze-lehiaketan haien parte hartzea indarrik gabe uzteko.

Zazpigarren artikulua.– Esleitutako plazak betetzen ari diren bitarteko funtzionarioek utzi egingo dute, titularra lanpostuaz jabetzearen ondorioz.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Estatuko Aldizkari Ofizialean aldi berean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bi aldizkarietan aldi berean ezin bada argitaratu, epeak EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abuztuaren 25a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

I. ERANSKINA

Prozesu eta Administrazio Kudeaketa

IFZ	IZEN-ABIZENAK	ESLEITUTAKO LANPOSTUA		PUNTUAZIOA	JATORRIZKO LANPOSTUA	JATORRIZKO UDALERRIA
		LANPOSTUAREN KODEA	DOTAZIO-ZENBAKIA			
72311901Q	Goiri Sustacha, Tatiana	480003	8	10	480001-22 ZULUP	Getxo
72445672L	Eguiguren Zulaica, Mercedes	480029	7	6,18888904	Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegia	Donostia
50729989Q	Carrete Rivas, Sonia	480026	2	6,11666676	Lehen Auzialdiko 4 zk.ko Epaitegia	Bilbao
78865928D	Angulo Briones, Jesús M.ª	480003	11	5,07777864	Zigor Arloko 1 zk.ko Epaitegia	Bilbao
72577330W	Domínguez Rodríguez, Rosa	480003	17	4,61666716	Instrukzioko 5 zk.ko Epaitegia	Donostia
18594101G	Cendoya Artaza, Oscar	480022	1	3,1944454	480022-1 ZULUP Lan-arlokoa	Vitoria-Gasteiz
18596500B	Zurbano Fernández, Mónica	480020	4	0	580027-1 ZULUP Administrazioarekiko Auzietarakoa.	Vitoria-Gasteiz

Izapidetze Prozesala eta Administratiboa

IFZ	IZEN-ABIZENAK	ESLEITUTAKO LANPOSTUA		PUNTUAZIOA	JATORRIZKO LANPOSTUA	JATORRIZKO UDALERRIA
		LANPOSTUAREN KODEA	DOTAZIO-ZENBAKIA			
30580470S	de la Puente Bringas, Lourdes	580004	16	47,7055569	580001-58 ZULUP	Balmaseda
51680723E	Gómez Piquero, María Paz	580004	18	47,616668	580005-9 Prozesu Orokor eta Exekuzioko Zerbitzu Erkidea	Bergara
78865725J	Arco Ruiz, Encarnación	580005	6	45,200001	580003-37 Prozesu Orokor eta Exekuzioko Zerbitzu Erkidea	Durango
30574035C	Zabala Garavilla, Ainhoa Miren	580005	7	38,0055556	Probintzia Auzitegia. Bilboko Zigor Arloko 2 zk.ko Sekzioa	Bilbao
30627300V	Urrutia Idoyaga, Esther	580004	15	15,1388898	580003-5 Prozesu Orokor eta Exekuzioko Zerbitzu Erkidea	Eibar
72392287V	Fuente Miguel, Belén	580004	25	11,7944459	Lehen Auzialdiko 14 zk.ko Epaitegia	Bilbao
30694946C	Cidad Estibalez, Iratxe	580004	8	5,81111256	580001-76 ZULUP	Getxo

IFZ	IZEN-ABIZENAK	ESLEITUTAKO LANPOSTUA		PUNTUAZIOA	JATORRIZKO LANPOSTUA	JATORRIZKO UDALERRIA
		LANPOSTUAREN KODEA	DOTAZIO-ZENBAKIA			
72445900V	García Manzanal, María Lourdes	580004	4	5,73333472	580022-4 ZULUP Zigor-arlokoa	Vitoria-Gasteiz
29034416K	Zamora San Pedro, Javier	580029	3	3,78333476	580001-7 ZULUP	Amurrio
14592471Y	Llorente Ferrero, María Asunción	580004	7	3,53889012	Lehen Auzialdiko 3 zk.ko Epaitegia	Bilbao

Laguntza judiziala

IFZ	IZEN-ABIZENAK	ESLEITUTAKO LANPOSTUA		PUNTUAZIOA	JATORRIZKO LANPOSTUA	JATORRIZKO UDALERRIA
		LANPOSTUAREN KODEA	DOTAZIO-ZENBAKIA			
11921547A	Laza Terroba, Clara Elena	680015	24	31,1888898	Lehen Auzialdiko 6 zk.ko Epaitegia	Bilbao
18596190T	Irabien Ortueta, Yolanda	680015	23	14,1611112	Lan arloko 7 zk.ko Epaitegia	Bilbao
30631177F	Fernández Gómez, José Alberto	680015	1	7,96111268	680002-4 Prozesu Orokor eta Exekuzioko Zerbitzu Erkidea	Eibar
20184949B	Muñoz Sánchez, Carmelo	680002	13	3,8333348	680001-4 Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra	Azpeitia

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA
2014ko irailaren 4a, osteguna
167. zk.